

detaile txikiek bereizten gaituzte

berria Taldearen
zerbitzu enpresa

(<https://www8.smartadserver.com/click?>

[imgid=27846360&insid=10644148&pgid=1356874&fmtid=72131&ckid=5185739476508180335&uii=8171450215655449417&acd=1664272454340&opid=367b-4401-a8d4-ad87dbc504be&opdt=1664272454225&tmstp=9040588584&tgt=%24dt%3d1t%3b%24dt%3d1t%3b%24hc&sysgt=%24qc%3d1311819901%3b%24ql%3c59f_t0eY1P9_r_v-Qzjhfdt-8F2L_W_L0X42E7NF36pg4KuR4Eu3LBIQNIHMHUTUmwaokVrzHsak2MryNKJ7LEmnMZO2dYGHtPn91TuZKY7_78_fz3z-v_t_-39T37-3_3_5_X---_e_V399zLv9_39nN_9v-CDYBJhqXkAXYljgybRpVCiBGFYSHQCgAooBhaJrABgcFOysAj1BCwAQmoCMCIEGIKMGAQACAQBIREBIAWCARAEQCAAEAKKBCAAiYBBYAWBgE/02-13%2fpitxerreko-azken-zurrutak.htm&cappid=5185739476508180335&go=http%3a%2f%2fwww.bidera.eus\)](https://www8.smartadserver.com/click?imgid=27846360&insid=10644148&pgid=1356874&fmtid=72131&ckid=5185739476508180335&uii=8171450215655449417&acd=1664272454340&opid=367b-4401-a8d4-ad87dbc504be&opdt=1664272454225&tmstp=9040588584&tgt=%24dt%3d1t%3b%24dt%3d1t%3b%24hc&sysgt=%24qc%3d1311819901%3b%24ql%3c59f_t0eY1P9_r_v-Qzjhfdt-8F2L_W_L0X42E7NF36pg4KuR4Eu3LBIQNIHMHUTUmwaokVrzHsak2MryNKJ7LEmnMZO2dYGHtPn91TuZKY7_78_fz3z-v_t_-39T37-3_3_5_X---_e_V399zLv9_39nN_9v-CDYBJhqXkAXYljgybRpVCiBGFYSHQCgAooBhaJrABgcFOysAj1BCwAQmoCMCIEGIKMGAQACAQBIREBIAWCARAEQCAAEAKKBCAAiYBBYAWBgE/02-13%2fpitxerreko-azken-zurrutak.htm&cappid=5185739476508180335&go=http%3a%2f%2fwww.bidera.eus))

Berria

Izan BERRIAlaguna (https://www.berria.eu/berrialaguna/) **Asteartea** 2022ko irailak 27 (https://www.berria.eu/berrialaguna/berrialaguna/)

Asteartea, 2022ko irailak 27

Izan BERRIAlaguna (https://www.berria.eu/berrialaguna/berrialaguna/)

[Hasiera](https://www.berria.eu/)
(<https://www.berria.eu/>)

[Bizigiro](https://www.berria.eu/bizigiro/)
(<https://www.berria.eu/bizigiro/>)

[Bizigiro](https://www.berria.eu/bizigiro/) ATZEKOZ AURRERA
(<https://www.berria.eu/bizigiro/>)

Pitxerreko azken zurrutak

Bihartik aurrera itzuliko da txotxa sagardotegietara, eta langile zein bezeroak gogotsu daude ohiko girora itzultzeko. Asteburuan, pitxerretik edan dute sagardoa.



Ane Insausti
(https://www.berria.eus/egilea/Ane_Insausti)



Hiru lagun pitxerretik sagardoa zerbitzatzen, Oialume Zar sagardotegian. ANDONI CANELLADA / FOKU
(https://www.berria.eus/argazkiak_papera/BERRIA/d20220213/p040_f01.jpg)

2022ko otsailak 13 -
Astigarraga



(<https://www.facebook.com/sharer/sharer.php?u=https://www.berria.eus/paperekoa/1957/040/001/2022-02-13/pitxerreko-azken-zurrutak.htm>)

(<https://twitter.com/share>) 0

(<https://www.berria.eus/paperekoa/1957/040/001/2022-02-13/pitxerreko-azken-zurrutak.htm#iruzkinak>)

(<https://www.berria.eus/berrialaguna/login>)

Astekaria buletina

Irakurri gabe utzi ezin diren artikuluak

Jaso nabarmenduriko albisteak, astelehenero, zure helbide elektronikoan.

HARPIDETU!
[Berria.eus/buletinak/](https://www.berria.eus/buletinak/)

berria **zuk badakizulako**



(https://www8.smartadserver.com/click?imgid=27797892&insid=10644136&pgid=1b403-4d6a-8467-bc0cc501b96e&opdt=1664272454225&tm=59f_t0eY1P9_r_v-Qzjhfdt-8F2L_W_L0X42E7NF36pg4KuR4Eu3LBICv_t_-39T37-3_3_5_X---e_V399zLv9_39nN_9v-CDYBJhqXkAXYljgybRpVCiBGFYSHQCg,02-13%2fpitxerreko-azken-zurrutak.htm&cappid=5185739476508180)

Gehien irakurriak
(<https://www.berria.eus/irakurriak>)

Ez da ohitura bereziki zaharra, baina bai oso errotua eta estimatua, «txotx!» oihukatu, eta sagardoa dagoen upeletik zuzenean edatea. Izan ere, duela 50 urte inguru hasi ziren sagardoa modu horretan edaten elkarte gastronomikoetako kideak, elkarterako zein sagardo erosi aukeratzeko, inguruko baserrietara joaten zirenean. Zutik dastatzen zuten urteko uzta, eta, azkenerako, erritu bihurtu zen.

Txotxaren aurretik, pitxerretik edaten zen sagardoa, ordea. Esate baterako, oso ezaguna da Jose Manuel Lujanbio Retegi *Txirrita* zenaren sagardotegiko argazkia, lagun batzuekin agertzen dena. Bertan, pitxerra dute sagardotegiko mahai gainean. Halabeharrez heldu diote azken bi urteetan sagardotegiek ohitura zahar horri, pandemiaren eraginez. Baina horrek ere badu iraungitze data: bihar, neurri murriztaileak bukatzearekin batera, txotxa itzuliko da sagardotegietara.

Larunbat eguerdia da Astigarragako (Gipuzkoa) Oialume Zar sagardotegian, eta jendea hasi da mahaian esertzen. Ez da beste hizpiderik jendearen artean: datorren astetik aurrera giroa erabat desberdina izango da, txotxari esker.

Neurriak neurri, «sekulako ilusioarekin» hasi dute aurtengo denboraldia, Ander Barrenetxea sagardotegiko arduradunaren arabera: «Denboraldia pitxerrarekin hasi genuen, baina aurten txotxa izango den esperantzarekin». Bi garairen ostean, pozik hartu dute txotxaren itzuleraren berria.

Barrenetxearen hitzetan, «jendea ere gogoz etorri da hasieratik, ondo», baina guztiek dute sagardotegian ohiko moduan egoteko gogoia. Ate joka daukate txotxa, eta zerbitzariak ere bezperako afarrietan igartzen zela diote,

1 Prosaz haragoko udazken bat **(<https://www.berria.eus/pape09-27/prosaz-haragoko-udazken-bat.htm>)**

INIGO ASTIZ
([HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA/INIGO_ASTIZ](https://www.berria.eus/egilea/inigo_astiz))

2 Lau akusatuk onartu dute abusuak egin izana tutoretzapeko adingabeei **(<https://www.berria.eus/pape09-27/lau-akusatuk-onartu-dute-abusuak-egin-izana-tutoretzapeko-adingabeei.htm>)**

EDURNE BEGIRISTAIN
([HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA/EDURNE_BEGI](https://www.berria.eus/egilea/edurne_begi))

3 Arrakastaz lortu dute asteroide bat tirokatzea, egunen batean Lurra salba lezakeen ariketa batean **(<https://www.berria.eus/albist-lortu-dute-asteroide-bat-tirokatzea-egunen-batean-lurra-salba-lezakeen-ariketa-batean.htm>)**

EDU LARTZANGUREN
([HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA/EDU_LARTZAN](https://www.berria.eus/egilea/edu_lartzan))

giro oso ona egon zelako: «Ez dakigu nork pasa zuen hobeto, haiek edo guk», diote. Ohiko modura itzultzeko gogotsu baitira, bezeroak bezala, langileak ere.

Iragarpenarekin batera hasi zen telefonoa ere hotsa ateratzen: «Albistea eman zutenetik telefonoa berriz ere dantzan hasi da. Orain arte %60ko edukiera izan dugu, eta itxaron zerrendan jartzen genuen jendea».

Edukiera handitu arren, ordea, ez daukate mahai kopurua asko aldatzeko asmorik. «Pentsatzen ari gara mahai askoz ere gehiago ez jartzea. Lehen beti topera ibiltzen ginen, gainezka, eta orain erritmo onean ari gara. Gainera, gero apirila iritsi eta berriro jaisten badute edukiera, zer?».

Atetik sartu eta lehenengo mahaian daude, iritsi berri, Donibane Azkarate eta Ibai Uriarte, «estreinatzeko zain». Txotxa edo pitxerra, pitxerra edo txotxa; zalantza horrekin joan dira sagardotegira: «Anderri hori galdetu diogu lehenengo: gaur nola joango da kontua? Azaldu digu, eta, espero bezala, pitxerretik edango dugu».

Haien ondoan sei upel daude, errenkadan jarrita. Upel bakoitzak kartel bat dauka, sagardoa egiteko zer herri eta baserritako sagarrak erabili dituzten dioena: Altuna, Aierdi, Elione, Sansonategi... irakur daiteke horietan: «Aurten bertako sagarra soilik erabili dugu. Hurrengo urtean, ziur aski, ezingo dugu, baina aurten bai», azaldu du Barrenetxeak.

Upelei, berriz, metalezko pieza bat gehitu diete, txotxaren muturrari itsatsita, pitxerrak hobeto betetzeko. Datorren astean kenduko dituzte, eta ohiko muturra soilik utziko dute, jendeak bere kabuz erabil dezan.

Itzultzeko aitzakia

4 **«Giza historiako krisi larrienean gaude, eta ez dago erantzun proportzionalik»**
(<https://www.berria.eus/pape09-27/giza-historiako-krisi-larrienean-gaude-eta-ez-dago-erantzun-proportzionalik.htm>)

MAITE ASENSIO LOZANO
([HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA/MAITE_ASENSIO](https://www.berria.eus/egilea/maite_atsensio))

5 **Koherentzia**
(<https://www.berria.eus/pape09-27/koherentzia.htm>)

ONINTZA ENBEITA
([HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA/ONINTZA_ENBEITA](https://www.berria.eus/egilea/onintza_enbeita))

Hainbat lagun talde pitxerra bete eta kanpora atera dira, aire zabalean eta eguzkipean sagardoa edatera. Hogei lagun inguru daude bertan sagardoa dastatzen. Ana Zabaltza, Roi Campus eta Jordi Sellares dira horietako batzuk, eta Bartzelonakoak dira. «Donostiako lagun bat daukagu, Mikel, [hatzarekin seinalatuz] eta urtero etortzen gara harekin sagardotegira. Duela zazpi urte ere, antza denez, hona etorri ginen».

Bartzelonarrak ez ziren datorren astetik aurrera txotxa egongo denaren jakitun, eta penaz hartu dute berria. Baina konforme daude pitxerrekin ere: «Bueno, pitxerrak ditugu guretzat», diote. Gustura daude, baita ere, egun euritsua egokitu ez zaielako: «Gainera, agian datorren astean hemengo eguraldia egingo du!», diote txantxetan.


Asko direnez, aspaldi aukeratu zuten atzoko data. «Aurrerapen handiz hartu behar izan dugu tokia, asko garelako. Hurrengo urtean itzuli beharko gara, txotx egitera!»

Haiek bezala, badute errepikatzeke aitzakia Uriartek eta Azkaratek ere, lagun batek huts egin baitie azken orduan: «Hiru ginen etortzekoak, baina duela ordu erdi positibo eman du hirugarren lagunak, eta ezin izan da etorri», adierazi du Uriartek.

Azkaratek, berriz, ironiaz dio: «Ikusten duzu zer triste gauden hura gabe. Pena da aurrerapen handiz hartu behar dela tokia, larunbat eguerdietarako batez ere. Ez da erraza izango». Saiatuko dira, ordea: «Ea aukerarik daukagun!».

Sareko BERRIAzalea:

Euskal kultur agenda BERRIAN



(https://www8.smartadserver.com/click?imgid=27797914&insid=10644152&pgid=12648-4e3b-a12b-3722c37f3161&opdt=1664272454225&tms_59f_t0eY1P9_r_v-Qzjhfdt-8F2L_W_L0X42E7NF36pg4KuR4Eu3LBIG_v_t_-39T37-3_3_5_X---)

Irakurri berri duzun edukia eta antzekoak zure interesekoak badira, eskari bat egin nahi dizugu: *Berria* diruz babestea.

Zuk eta zure gisako sareko milaka irakurlek egindako ekarpenarekin, eduki gehiago eta hobeak sortuko ditugu. Eta, zuekin osatutako komunitateari esker, publizitateak eta erakundeen laguntzek bermatzen ez diguten bideragarritasuna lortuko dugu.

Euskarazko kazetaritza libre, ireki eta konprometitua eskaini nahi dizugu egunero; bizi zaren munduaren eta garaiaren berri ematen segitu.

Izan BERRIAlaguna >
(<https://www.berria.eus/berria>)

Gaiak


Gastronomia (<https://www.berria.eus/etiketak/gastronomia/>)

Bizimoduak (<https://www.berria.eus/etiketak/bizimoduak/>)

Gipuzkoa (<https://www.berria.eus/etiketak/gipuzkoa/>)

Euskal Herria (<https://www.berria.eus/etiketak/euskal-herria/>)

Albiste gehiago



[e_V399zLv9_39nN_9v-
CDYBJhqXkAXYljgybRpVCiBGFYSHQCg,
02-13%2fpitxerreko-azken-
zurrutak.htm&cappid=5185739476508180:](https://www.berria.eus/berria)




Arrakastaz lortu dute asteroide bat tirokatzea, egunen batean Lurra salba lezakeen ariketa batean
(<https://www.berria.eus/albisteak/218735/arrakastaz-lortu-dute-asteroide-bat-tirokatzea-egunen-batean-lurra-salba-lezakeen-ariketa-batean.htm>)

EDU LARTZANGUREN

([HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA/EDU_LARTZANGUREN](https://www.berria.eus/egilea/edu_lartzanguren))

Asteroidearen erditik 17 metrora jo dute. Zuzenean ikusi ahal izan da proba. Orain, kalkuluak egin beharko dituzte, jakiteko zenbat desbideratu den kolpaturiko objektuaren orbita. **BIDEOA albistearen barruan.**



«Emakume informatikari erreferenteak behar dira»
(<https://www.berria.eus/paperekoa/1888/040/001/2022-09-27/emakume-informatikari-erreferenteak-behar-dira.htm>)

UNAI ETXENAUSIA

([HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA/UNAI_ETXENAUSIA](https://www.berria.eus/egilea/unai_etxenausia))

Il. Gladys saria jasoko du gaur Perez de Viñasprek. Gaztea izan arren, ibilbide oparoa du informatikan. Nabarmendu duenez, gustatzen zaizkion ikerketak egiten aritu nahi du aurrerantzean ere.



Ez ahanzteko ariketak
(<https://www.berria.eus/paperekoa/1968/038/001/2022-09-27/ez-ahanzteko-ariketak.htm>)

GOTZON HERMOSILLA

([HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA/GOTZON_HERMOSILLA](https://www.berria.eus/egilea/gotzon_hermosilla))

Natalia Ginzburg idazleak testu bat argitaratu zuen garai hartako prentsan 1975eko irailaren 27ko fusilamenduen harira. Orain, testu hori euskarara ekarri du Josu Zabaletak; itzultzaileak FRAPeko hiru kondenatuak ezagutu zituen espetxean.



Fusilaturik isilgordeena, Garcia Sanz

(<https://www.berria.eus/paperekoa/1918/036/001/2022-09-27/fusilaturik-isilgordeena-garcia-sanz.htm>)

MIEL A. ELUSTONDO

([HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA/MIEL_A_ELUSTONDO](https://www.berria.eus/egilea/miel_a_elustondo))

1975eko irailak 27 beti. Frankismo garaiko azkeneko bost fusilatuak. Sanchez Bravo, Garcia Sanz, Baena, Txiki, Otaegi. Haien ondoan militante ez gutxi, heriotzara kondenatuak izanak, zigorra kommutatuak. Askoren artean, Manuel Blanco Chivite. Bizi-bizirik du egun haietako oroitza samina. Ilun beltzaren muturrerainoko bidaia. Azkena.

Astekaria

Asteko gai hautatuekin osatutako albiste buletina. Astelehenero, ezinbesteko erreportajeak, elkarrizketak, iritziak eta kronikak zure posta elektronikoan.



Pribatutasun politika (<https://www.berria.eus/legeinformazioa#pribatutasuna>).

eta Lege informazioa (<https://www.berria.eus/legeinformazioa>) irakurri ditut

eta onartzen ditut

idatzi zure posta elektronikoa

Harpidetu

0 Comentarios



Sé el primero en comentar...

INICIAR SESIÓN CON

O REGISTRARSE CON DISQUS 

Nombre

Ordenar por los más nuevos ▾



Sé el primero en comentar.

Berria.eus - Euskal Editorea SM

Telefonoa: 943-30 40 30

Faxa: 943-59 01 72

Webgunea: webgunea@berria.eus

Publizitatea: publi@bidera.eus

Harpidetza: harpidetza@berria.eus

JARRAITU

 [Facebook](https://www.facebook.com/Berria.eus/)


(<https://www.facebook.com/Berria.eus/>)

 [Twitter](https://twitter.com/berria)

(<https://twitter.com/berria>)

 [Instagram](https://instagram.com/berria)

(<https://instagram.com/berria>)

 [Youtube](https://www.youtube.com/channel/UCBw1v0)

(<https://www.youtube.com/channel/UCBw1v0>)

SAILAK

[Gizartea](https://www.berria.eus/gizarte/)

(<https://www.berria.eus/gizarte/>)

[Politika](https://www.berria.eus/politika/)

(<https://www.berria.eus/politika/>)

[Mundua](https://www.berria.eus/mundua/)

(<https://www.berria.eus/mundua/>)

[Ekonomia](https://www.berria.eus/ekonomia/)

(<https://www.berria.eus/ekonomia/>)

[Kirola](https://www.berria.eus/kirola/)

(<https://www.berria.eus/kirola/>)

[Kultura](https://www.berria.eus/kultura/)

(<https://www.berria.eus/kultura/>)

[Bizigirot](https://www.berria.eus/bizigirot/)

(<https://www.berria.eus/bizigirot/>)

[Ihilkari](https://www.berria.eus/ihilkari/)

(<https://www.berria.eus/ihilkari/>)

LEGEA

[Lege Informazioa](https://www.berria.eus/lege-informazioa/)

(<https://www.berria.eus/lege-informazioa/>)

[Pribatutasun politika](https://www.berria.eus/lege-pribatutasun-politika/)

(<https://www.berria.eus/lege-pribatutasun-politika/>)


[Cookieak](https://www.berria.eus/lege-cookieak/)

(<https://www.berria.eus/lege-cookieak/>)

[Zozketak](https://www.berria.eus/lege-zozketak/)

(<https://www.berria.eus/lege-zozketak/>)



 [RSS](#)

[\(https://www.berria.eus/rss/\)](https://www.berria.eus/rss/)

[Iritzia](#)

[\(https://www.berria.eus/iritzia/\)](https://www.berria.eus/iritzia/)

[Berria TB](#)

[\(https://www.berria.eus/berria-tb/\)](https://www.berria.eus/berria-tb/)

[Infografiak](#)

[\(https://www.berria.eus/infografiak/\)](https://www.berria.eus/infografiak/)

[Argazkiak](#)

[\(https://www.berria.eus/argazkiak/\)](https://www.berria.eus/argazkiak/)

[Lan eskaintzak](#)

[\(https://www.berria.eus/lan-eskaintzak/\)](https://www.berria.eus/lan-eskaintzak/)

[Lizentzia](#)
[\(https://www.berria.eus/lizentzia/\)](https://www.berria.eus/lizentzia/)

[Publizitatea](#)
[\(https://www.berria.eus/publizitatea/\)](https://www.berria.eus/publizitatea/)

[Bidera zerbitzuak](#)
[\(https://www.bidera.eus/\)](https://www.bidera.eus/)

[MIDAS Media](#)
[\(https://www.berria.eus/midas-media/\)](https://www.berria.eus/midas-media/)

[Media_2020.pdf](#)
[Media_2020.pdf](https://www.berria.eus/media_2020.pdf)

<http://www.gipuzkoa.net>

<http://www.uzei.eus/online/idite/>

<http://www.emakunde.euskadi.eus/enpresa-erakundeak/-/informazioa/lankidetz-erakunde/>